

BLANCA URGELL

Zein dira euskarafobia eta euskaltzaletasun modernoaren oinarriak?

2025-10-14



PLAZA

Atzera begira jarri gintuen Blanca Urgellek, Euskaldunentzako Jabetze Eskolaren bigarren saioan. Uste baino atzerago, gainera: euskararen historia soziala egin zuen Blancak, ohituta gaudena baino denbora-tarte urrunagoari begira jarrita. Berak esan bezala, “dramatismorik eta presentismorik” gabe, eta garaian garaiko errealitatea Europako garaian garaiko korronteen baitan ulertuta.

1. Gaur egungo euskarafobiaren eta euskaltzaletasunaren erroak XVIII. eta XIX. mendeetan ezarri ziren. Eta, Blancaren esanetan, Europa mendebaldeko hizkuntza gutxitu guztien kasuan errepikatzen da irakurketa hori.

2. Euskararekiko ikuspegi sozialaren bi korronte nagusi horiek aztertzeko, **garai hartako euskal eliteei erreparatu behar diegu**, nahitaez. XVIII. Mendean nolabaiteko estatusa zutenen joera izan zen euskarareko **ezaxolaren eta abandonuaren ondorio** izan ziren, nolabait: batetik, ezaxola hori euskarafobia bihurtu zen sektore batzuetan (agian, gehienetan), hainbat arrazoi soziopolitiko tarteko; eta, bestetik, euskaltzaletasun modernoak, ezaxola eta abandonu horri berari erantzuteko sortu zen.

3. Indar handia hartu zuen euskarafobia horren oinarrian elitea zegoen; hau da, nobleek, burgesek eta ikasketak zituen orok (elizgizonak barne) osatzen zuten gizon-multzoa. Klase subalternoek, jende xeheak, botere maila txikiagoa zutenek, ez zeukaten joerak markatzeko aukerarik. Goi-mailakoen axolagabekeriari erdaltzaletasuna batu zitzaion, eta sarri ahazten dugun zerbait: beraien **botere-kuota babesteko muga bezala erabili zuten hizkuntzaren erabilera, klase subalternoen aurrean.**

4. Euskaltzaletasuna nondik datorren aztertzeko, garai hartan Europa astindu zuten pentsamendu-korronteei begiratu behar diegu. Eliteek, “herriarengandik urrundu” zirela ikusirik, itzuli egin nahi izan zuten: tradizioei begiratu, bilketa-lana egin... eta tokian tokiko hizkuntzei arreta jartzen hasi ziren. Ordea, ohartu ziren berandu zebiltzala: ilustrazioak kalte handia egin zuen, hizkuntza-aniztasunaren ikuspegitik galerak ekarrita. Hainbat hizkuntza (euskara barne) galbidean zeudela ohartu ziren.

BLANCA URGELL

Zein dira euskarafobia modernoaren eta euskaltzaletasun modernoaren oinarriak?

2025-10-14



5. Hainbat izan ziren garai hartan euskararen defentsan aritu zirenak; eta **horien artean zegoen, noski, Larramendi.** Euskara estandar bihurtzeko asmo irmoa izan zuen, kodetze-lana eginez eta baliabide berriak sortuz. Nabarmendu behar da gainera horretarako laguntza ekonomikoa jaso zuela (Joan Idiakez gipuzkoar lobby-kidearena barne), garaiko elitean zegoen giro euskaltzalearen seinale.

6. XVIII. eta XIX. Mendean sortutako euskaltzaletasunaren lorpenak ez ziren txikiak izan. Euskara, nazioaren kohesio-faktore nagusi izatea aldarrikatu zuten; tradizio partekatu bat bildu edota “asmatu” zuten; eta literatur hizkuntzaren ikusmolde bateratu bat ezarri zuten. Ez gara atzo goizekoak!